

# Atzo paretak pixa egiteko ziren<sup>1</sup>

1 Izagirre, K. (2011).

Laburpena: *Kale-arteizenezulertzenduguna askotariko jardueren interesek zeharkaturik agertzen da, Donostia Zinemaldiaren 58. edizioan Banksy-rena omen zen muralak sortu harrabotsak ageriko utzi zuenez. Artikulu honetan, eta Ideia Beltzen Brigada kolektiboaren lanean nahiz kale-artearen egungo egoeran oinarrituz, kudeatu beharreko marka bilakatu diren hirietan kulturari atxiki dioten balioa azalduko da.*

Gako -hitzak: Kale-arte, Kultura, Europako Kultur Hiriburutza

Abstract: *During the 58th edition of the International Film Festival of San Sebastian, a graffiti whose authorship was attributed to Banksy created quite a controversy, proving the idea that what we understand by "street art" is shaped by multiple intersecting interests. Based on the work by Brigada Beltzen Kolektiboa and the current situation of street art, this article explains the definition of "culture" that has prevailed in the so-called branded cities.*

Keywords: street-art, culture, European Capital of Culture



Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

Soziologoa, Aztiker Soziologia Ikerguneko teknikaria eta EHUko Gizarte Antropologia masterreko ikaslea.

Jasotze data: 2015-11-09 / Onarpen data: 2015-12-28

Ikastolako bidean dagoen horman agertu den marrazkiak eraikin ikusgarri altxatu berriak bezainbeste garestitu dezake alokairua eta tabernako kafesnea. Gaur egungo sozietateetan kontsumo zuzen nahiz zeharkakoa sortzeko duen gaitasunaren ondorioz bilakatu da kultura gentrifikazio-prozesuen berezko elementu. Zerbitzu eta ekoizkinei, ukiezinak horietako asko, balio erantsia atxikitzen die. Eta aipatu balioek emozioekin talka egiten dutenean, guk, estimulu eta atzipen indibidualizatu, eskusibo eta ustez egiazkoen gose-egarri den sozietateko kideok, aldarrikatu eta galdatu egiten ditugu. Horrela, erreferentziatzko ondarea edo kontsumoa sustatzen duen jarduera kulturalako espazio batean bizitzea sozietatean nor izateko eta kapital kulturala metatzeko ezinbesteko baldintza bilakatu dela dirudi. Kultura eta kultura-objektua merkantzia bilakatu zituen kultura-industria berak, merkantziok ekoizten dituen aldi berean, kontsumitzailearen premiak ere ekoizten ditu publizitatearen bitartez.

Lehen, hirietan, eraikin ikusgarri bat izatea zen «arrakasta»ren gakoa. Orain, hiri osoa bihurtzen da museo. Jarduera postmoderno nagusia den turismoak espazio oro bilakatzen baitu ikusgarri, eta, ondorioz, kontsumorako gai. Horretarako, baliabideak dituen herritarra bilakatzen da bere hirian bertan turista. Langile-izaera (azukretua, noski), fabrikari (ustez) atxikitzen diogun zer hori, debekatua edo urratzailea dena... egiazkoa eta alternatiboa zaigu langileen munduarekin zerikusia duen guztia suntsitu duen Donostian. Fabrika zaharrak sormen artistikorako espazio bilakatzen dira; inoiz tailer edo lantegi izandakoak modako diskoteka; eta behinola garbi behar zuten hormak, artearen erakustoki.

## Graffiti hil da!

Testuinguru horretan, «graffitia hil da!» irakur daiteke kale-arteari buruzko artikuluetan. Arte garaikideak kanpo-publizitatearekin eta kultura popularraren askotariko formekin, bereziki graffitiarekin, duen harremanetik sortutako lengoaien multzo heterogeneoari esaten diogu kale-arte<sup>1</sup> (Urbanario, 2012). Finean, lengoia eta korrante horiek espazio publikoan eta artistaren ekimen eskusiboz, inolako erakunderen kontrolrik gabe alegia, garatzea dute komunean. Behinola komunean izan zutena, akaso?

«Graffiti hil da!», pentsatuko zuen kale-artista ez gutxi 2010eko irailean, Donostiako Udaleko agintariak hiriko horma batean agertu stencil bidez egin marrazkia ez ezabatzearen alde agertu zirenean. Donostiako Zinemaldia jaialdian, eta Perlak Sailean *Exit Through the Gift Shop* dokumentala aurkeztu zelarik, ustez dokumentalaren egile eta ospere kale-artista Banksyren lana omen zen margoak harrabotsa sortu zuen. Ezabatu edo bere horretan mantendu. Europako Kultur Hiriburutza proiektuaren leitmotiv izango zen *Elkarrekin bizitzeko kultura* leloa zaindu beharrak, itxuraz bazen ere, askoren jokaerak kulunkatu zituen. Ezin ahaztu ezta ere, hilabete hartan, nazioarteko epaimahaiaren lehen galbahea igaro behar zuela orduan proiektua besterik ez zenak. Eta orduko kultura-zinegotzi Denis Itsaso arte-lana ezabatu ala ez erabakitzeko batzorde bat osatu beharko litzatekeela esatera iritsi zen ETBko informatiboetan. Hiriko gainerako muralen egileekin egin bezala egilea atxiki eta zigortu ala bisitarien gozamenerako kristalezko markoarekin atondu? Baita gehiago ere: Bilbaok Guggenheim baldin badu, Donostiak zergatik ez Banksy? Kale-arte, izan ala ez izan.

<sup>1</sup> Urbanario. Graffiti y arte urbano (2012): <<http://urbanario.es/>>.

Horixe gakoa. Eta horixe, hain zuzen ere, aipatu marrazkiak adierazten zuen situazioa: espazio publikoan, kalean, koadro hutsari so ageri den gizonetako.

2012ko Karrika jaialdian larrugorritu zen gertakaria. *Karrika. Kaleko Arte Jaialdia*, gerora *LE(gez)KA(npo)* izenarekin antolatua, 2012. eta 2013. urteetan Kortxoenea Gaztetxean egindako kale-artisten topalekua izan zen. Periferian eta periferiarako sortua: «Hirien periferietan pentsamendu originala sortzen baita; maitasun, gorroto, atsekabe eta erradikalitatez bete. Periferiak egiten du posible pentsamendu eta ekintza independentea, gaztetxeak, arrarotasuna eta ezezaguna»<sup>2</sup>. Hamaika lore eta koloreko buru-berokiarekin mozorroturiko *Ideia Beltzen Brigadako* lagunak margoketa bere gain hartu eta ziriaren barrunbeak erakutsi zituen. Mekanismoa, sinplea oso: aurrez prestatu txantiloiarekin marrazkia hormatu, argazkia atera, eta Gipuzkoan *ahalgutziduna* den egunkarira igorri Banksyren balizko autoretza iradokiz. Hortik aurrerakoa, meza-hedabide eta txandako politikarien nabarmenkeria-nahiak gezurraren mataza nahasten uztea besterik ez zen izan. Bere txikian, baina, hiria normalizatu asmo duen kulturaren diskurtsoan arrakala sortu zuen. Erregea biluzik; agintariak irrigarri.

### **Ideia Beltzen Brigada**

«*Gauza arraro hori*», dena eta ez dena aldi berean. Edo, akaso, izan zena. Lanean Bartzelonan hasten den kolektibo artistiko honen helburua «aldaketa sozial eta pertsonala eragitea da»<sup>3</sup>. *Kortxoenea. Sortzea irautea delako* dokumentalean kolektiboko kideek diotenez, hastapenetan planteatzen dituzten aldaketak espazio publikoari lotutakoak dira. Esku-hartze txikien bitartez, espazio publikoak, espazio estetikoak ezbaian jarri asmo dituzte, haien nolakotasunaren inguruan gogoeta eraginez. Interbentzio estetikoekin espazioa aldatzetik, hiriari buruzko aurreiritziak noraino heltzen diren, eta, aurreiritzi horiek zeintzuk diren gogoeta egitera heltzen dira. Horretarako, askotariko tresnak baliatuz, gezurra ardatz betiere. Txantxa. Iruzurra. Ofizialtasuna zalantzan jartzeko erakunde ofizialen espazioak erabili eta baliatu: «*ofizialtasuna beti egiazat hartzen delako*». Hiriko paisaia aldatu: «*hiriko paisaia ez baita arkitektoen esku bakarrik utzi behar*». Markesina, telefono-kabina eta zaborrontziak. Gezurra, sorkuntza, sublimazioa (Etxeberria, 2009).

### **Gezurra: ondorio errealek dituen fikzioa**

Kale-arte adierazpen-askatasunaren agerpen erreala dela ulertu izan dugu. Komunikazio komertzialak espazio publikoan garatzen den adierazpen oro monopolizatzen duen garaioan, ordea, balekoa al da aipatu praktikari atxikitzen diogun ezaugarria? Hormak zuritu eta zigorrak

areagotzen diren bitartean, politika hegemonikoaren sustapenerako erabiltzen dira kale-artearen zenbait adierazpen. *Graffitiaren asimilazio soziala*, berriz, Naomi Kleinek aipatu patronazgoaren hedapena eta marka/kultura mugaren ezabatzearen ondorio da: publizitateak kale-artearen estetika eta taktikak erabiltzen ditu; galeria, enpresa edo udalak kontratatu langile bilakatzen da artista (Klein, 1999); eta hiriak kudeatu beharreko marka bilakatu direnez gero, kaleko artelanak turismoaren erakarle dira. Edo bildumagileek erosiak dira, Josu Larrinagak *haustura artistikoa edo art fracking* deitu duena jazoz: «oso aberatsak direnek euren inbertsioak dibertsifikatu nahi dituzte eta euren fikziozko kapitalen parte bat desbideratzen dute arlo horretara, inoiz inbertsioa berreskuratzeko dutelakoan» (Larrinaga, 2013). Logika horrek aipagai dugun kultura-eremuaren berezko balioen desitxuratzeari dakar batetik, eta ordura arte kale-artista izandako zenbaiten onarpenarekin, kapitalari mesedegarri ez zaizkion jarduera-emaizten zentsura bestetik. DSS.2016.EUren abaroen muralak egin dira hormetan, azpiegitura urbanoa «dekoratua» izan da. Eta galdetu beharko litzateke ea aipatu interbentzioek eragin estetiko-ekonomikoa soilik ez ote duten. Zer mantendu (baimendu) eta zer ez, berriro ere. Banksyren graffiti batek Donostia salgarri egiten du; AHTaren kontrako batek, ez hainbeste.

«Arteak barne eraikuntzan lagundu dezan, komunikabide handiek bultzatzen dituzten estereotipoak hankaz gora jarri eta norberaren jarrera kritiko eta lotsarik gabekoa» (Etxeberria, 2009) beharrezkoa dela diote Ideia Beltzen Brigadako lagunak. Jarrerok eragiteko, baina, probokazioa ez da nahikoa. Gaur-gaurkoz, badirudi ilegalitateak soilik ahalbidetu dezakeela espazioaren nahiz tresnen egiazko erabilera demokratikoa; gezurrak sorpresa eragin dezakeen bezala. Atzo paretak pixa egiteko ziren eta, guk, kale-artisten isunak kitatzeko serigrafiatu Banksy Donostian dioen kamiseta daramagu soinean.

///

### **Bibliografia**

- Klein, N. (1999): *No Logo*, Paidós, Bartzelona.
- Urbanario. Graffiti y Arte Urbano (2012): <<http://urbanario.es/>>.
- Etxeberria, I. (2009): «Kalean, artea opari», *Berria*, 2009-2-11.
- Kortxoenea Gaztetxea (2015): *Kortxoenea. Sortzea irautea delako*. Dokumentala.
- Larrinaga, J. (2013): «Lurrikara Arrasaten», *Jakin*, 112-117 orr.
- Leka Jaialdia (2013): <<http://karrikajaialdia.blogspot.com.es/>>.
- Izagirre, K. (2011): *Egarri egunak portualdean*, Susa, Donostia.

<sup>2</sup> Leka Jaialdia (2013).

<sup>3</sup> Kortxoenea Gaztetxea (2015).



Irudiak - Kale-interbentzio artistikoak.  
Egilea - Ideia Beltzen Brigada

